**Espediente-zk./ Nº expediente**: 257/2020
**Prozedura/Procedimiento**: Zigoitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartzea / Aprobación de Plan General de Ordenación Urbana de Zigoitia PGOU

**Javier Gorbeña García (1, guztira 1)**
Alcaldía
Sinaduraren data: 31/05/2023
HASH: cb036ca3195015866195a5f6737a28db

## IRAGARKIA

## GAIA: ZIGOITIKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN HASIERAKO ONARPENA

2023ko apirilaren 24an egin zen Zigoitiko Udalaren Osoko Bilkuran ondorengo akordioa hartu zen:

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO edo Plan Orokorra) da udalerriko hirigintza-antolamendurako oinarrizko tresna nagusia. Horren bidez arautzen dira udal-mugarteko lurzoruaren erabilerak. Tresna garrantzitsua da, datozen urteetarako udalerri-eredua markatuko duten hirigintzako zehaztapenak ezarriko baititu.

Gaur egungo Zigoitiko udal-plangintzako arau subsidiarioak honako foru-akordio hauen bidez onartu ziren behin betiko:

- 695/2001 Foru Agindua, uztailaren 18koa, Zigoitiko Udalerriko Hiri Antolamenduko Arauen berraztertzearen espedienteari eta araudiari buruzkoa (ALHAO, 2001eko irailaren 14koa, 105. zk.)

- 12/2004 Foru Agindua, urtarrilaren 15ekoa, Zigoitiko Hiri Antolamenduko Arauen 1. xedapen-aldaketako espedienteari buruzkoa.

- 796/2004 Foru Agindua, irailaren 27koa, zeinaren bidez adierazi zen Zigoitiko Planeamenduko Ordezko Arauetako 2. xedapen-aldaketari buruzko espedientea behin betiko onartzen duen uztailaren 26ko 681/2004 Foru Aginduan ezarritako baldintzak onartu zirela.

- 392/2012 Foru Agindua, abuztuaren 2koa, behin betiko onartzen duena Zigoitiko udal-planeamenduaren arau subsidiarioen 7/2011 aldaketa puntualaren espedientea, Letonako 2 zenbakian duen Kudeaketa Fitxari dagokiona.

- 299/2011 Foru Agindua, ekainaren 16koa, zeinaren bidez behin betiko

## ANUNCIO

## APROBACIÓN INICIAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE ZIGOITIA.

El Pleno del Ayuntamiento de Zigoitia en sesión celebrada el 24 de abril de 2023 adoptó el siguiente acuerdo:

El Plan General de Ordenación Urbana (PGOU o Plan General) es el instrumento básico y principal de ordenación urbanística del municipio. Por medio de él se regulan los usos del suelo del término municipal. Su importancia deriva de que en este instrumento se establecen las determinaciones urbanísticas que marcarán el modelo de municipio para los próximos años.

Las actuales Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia fueron aprobadas definitivamente mediante los siguientes acuerdos forales:

- Orden Foral 695/2001, de 18 de julio, en relación al expediente de revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia y Normativa (BOTHA nº 105 de 14 de septiembre de 2001).
- Orden foral 12/2004, de 15 de enero, en relación con el expediente de modificación puntual número 1 de las Normas Subsidiarias de Zigoitia.
- Orden Foral 796/2004, de 27 de setiembre, en relación con aceptación del cumplimiento de las condiciones impuestas en la Orden Foral número 681/2004, de 26 de julio, de aprobación definitiva del expediente de 2ª Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia.
- Orden Foral 392/2012, de 2 de agosto, de aprobación definitiva del expediente de la Modificación puntual número 7/2011 de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, referida a la Ficha de Gestión número 2 de Letona.
- Orden Foral 299/2011, de 16 de junio, de aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 10

onartu zen Zigoitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea; hain zuzen ere, Ondategiko 2 poligonoko 915 lurzatiari buruzkoa.

- 334/2013 Foru Agindua, uztailaren 9koa, behin betiko onarpena ematen diona Zigoitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 11. aldaketa puntualaren espedienteari.

Eusko Legebiltzarrak 2/2006 Legea onartu zuen, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, eta hirigintzako euskal araudiaren esparrua aldatu egin zen. Lege horretako azken xedapenetako bosgarrenean ezarri zen planak egokitu egin beharko zaizkiela legearen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko zirela gehienez ere zortzi urteko epean. 2/2014 Legeak 15 urtera luzatu zuen epea. Epe hori 2021eko irailaren 20an amaitu zen.

HAPO onartzeko prozedura luzea da denboran eta tramitazio konplexua du. Osoko Bilkurak 2018ko maiatzean irizpideak eta helburuak onartu ondoren, espedientearen instrukzioaren une honetan dokumentua aurkeztu behar da, hasierako onespenerako. Horretarako agiriaren bertsioa egin eta igorri du J. JOSÉ LUQUE VALDIVIA eta IZASKUN ASEGUINOLAZA BRAGA (AL LUQUE ASEGUINOLAZA Y ASEGURADOS SLP) jaun-andreek osatutako taldeak 2023ko martxoan.

Prozeduraren tramitazioan egindako jarduera hauek nabarmendu dira:

Zigoitiko Udalaren 2008ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran HAPO berri bat idazteko kontratuaren adjudikazioa onartu zen, herritarren partaidetza-programa zuen proposamena, hain zuzen ere. Programa horretan partaidetzarako mekanismo bat planteatzen zen, jendeari irekitako zenbait azalpen-saiorekin aurreko urratsak barne zituena (azterketa eta diagnostikoa). Herritarren partaidetza lortzeko, Plan berriaren esanahiaz herritarrak hasieratik ohartzea beharrezkoa zela azpimarratu zen, hala erakusten duela esperientziak. Hori dela eta, Planak proposatu beharreko helburuen zehaztapenean parte

Zigoitia, referida a la parcela 915 del polígono 2 de Ondategi.

- Orden Foral 334/2013, de 9 de julio, aprobación definitiva del expediente de 11ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia.

Con posterioridad a la entrada en vigor de las actuales Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo, por lo que el marco normativo vasco relativo al urbanismo fue modificado. En la disposición final quinta de esta ley se establecía la obligación de los planes de adaptarse a sus determinaciones en un plazo máximo de 8 años, que fue ampliado a 15 años por la Ley 2/2014 de modificación de la Ley 2/2006. Este plazo venció el 20 de septiembre de 2021.

El procedimiento de aprobación del PGOU es un proceso extenso en el tiempo y con una tramitación compleja. Tras la aprobación por el Pleno de los Criterios y Objetivos en mayo de 2018, en este momento de instrucción del expediente concierne la presentación del documento para la aprobación inicial. La versión del documento para ello ha sido elaborada y entregada por el equipo redactor formado por JOSÉ LUQUE VALDIVIA e IZASKUN ASEGUINOLAZA BRAGA (AL LUQUE ASEGUINOLAZA Y ASEGURADOS, S.L.P.) en marzo de 2023.

En la tramitación de este procedimiento se destacan las siguientes actuaciones realizadas:

En sesión plenaria del Ayuntamiento de Zigoitia celebrada el día 18 de diciembre de 2008 se aprueba la adjudicación del contrato de redacción de un nuevo PGOU, aprobando la propuesta presentada que incluye el programa de participación ciudadana, en el que a modo de propuesta se plantea un mecanismo de participación que incluye varias sesiones abiertas al público explicativas que incluyen los pasos previos (análisis y diagnóstico). Se incide en que la experiencia muestra que para conseguir una amplia participación ciudadana es necesario que los vecinos se hagan cargo de lo que supone el nuevo Plan desde el

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 10

hartu behar lukete herritarrek, hasieratik beraien iritzia kontuan izango dela ohartuko bailirateke horrela. Partaidetza-programa hori 3. AGIRIAN dago: "PARTAIDETZAKO MEKANISMOAREN PROPOSAMENA".

2009ko otsailaren 19ko Informazio Batzordean herritarren partaidetza sustatzeko bileren egutegia aurkeztu zuen alkatetzak.

2009ko martxoaren 18an alkatetzak HAPO berriari buruzko informazio-bilerarako deialdia egin zuen; HAPO hori idazteko herritarren partaidetza-batzorde bat eratu behar zen eta egutegi bat egin zen. Horren berri eman zitzaien herritar guztiei 2009ko martxoaren 25an Kultur eta Gizarte Etxean egin zen bileran, non Plana idatzi zuen taldeak eta udal-ordezkariek herritarrei aurkeztu zieten, besteak beste, Plana idaztean herritarrek izango zuten parte hartzea.

2009ko apirilaren 2an Osoko Bilkurak Zigoitiko udal-plangintzako Batzorde Aholkulariaren Erregelamendua onartu zuen eta 2009ko apirilaren 14ko Alkatetzaren Bando bidez herritarrak gonbidatu ziren organo horretan parte hartzera, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria idazten parte hartu ahal izateko. 2016an berriro ireki zen herritarrek eta erakundeek bat egin eta organo horretako ordezkariak eguneratzeko epea.

Jarraian daude zerrendatuta organo horrek plan hau idazteko prozesuari buruz egindako bilerak:

| **Zigoitiko udal-planeamenduko Kontseilu Aholkularia** | |
|---|---|
| Bileraren eguna | 2009/05/26 |
| | 2009/10/13 |
| | 2010/03/16 |
| | 2010/03/23 |
| | 2011/12/14 |
| | 2012/03/07 |
| | 2016/07/04 |
| | 2016/11/24 |

comienzo. De modo que participen ya en la determinación de los objetivos que debe proponer el Plan, haciéndose cargo así de que se quiere contar con su opinión desde el principio. El programa de participación se incluye en el DOCUMENTO 3: "PROPUESTA DEL MECANISMO DE PARTICIPACIÓN.

En Comisión Informativa de 19 de febrero de 2009 la Alcaldía presenta calendario de reuniones para favorecer la participación ciudadana.

En fecha 18 de marzo de 2009 la Alcaldía efectúa una convocatoria a reunión informativa sobre el nuevo PGOU para cuya redacción se va a constituir una comisión de participación ciudadana y se ha elaborado un calendario, de lo que se informa en reunión abierta a todo el vecindario que se celebra el día 25 de marzo de 2009 en el Centro Socio Cultural, en la que el equipo redactor del Plan y representantes municipales presentan a la ciudadanía, entre otros asuntos, la participación ciudadana en la redacción del Plan.

El 2 de abril de 2009 el Pleno aprueba el Reglamento del Consejo Asesor de planeamiento municipal de Zigoitia y, a través de un Bando de Alcaldía, en fecha 14 de abril de 2009 se invita a la ciudadanía a tomar parte en dicho órgano con objeto de poder participar en la redacción de nuevo Plan General de Ordenación Urbana. En el año 2016 se vuelve a abrir un plazo a la ciudadanía y entidades para adherirse y actualizar sus representantes en este órgano.

A continuación, se enumeran las reuniones celebradas por dicho órgano relativas al proceso de redacción del presente plan:

| **Consejo Asesor de planeamiento municipal de Zigoitia** | |
|---|---|
| Día de celebración de reunión | 26/05/2009 |
| | 13/10/2009 |
| | 16/03/2010 |
| | 23/03/2010 |
| | 14/12/2011 |
| | 07/03/2012 |
| | 04/07/2016 |
| | 24/11/2016 |
| | 15/12/2016 |
| | 23/02/2017 |
| | 30/03/2017 |

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 10

| | |
|---|---|
| | 2016/12/15 |
| | 2017/02/23 |
| | 2017/03/30 |
| | 2017/05/11 |
| | 2017/07/27 |
| | 2017/09/28 |
| | 2017/12/14 |
| | 2018/04/12 |
| | 2019/11/05 |
| | 2020/12/17 |
| | Inkesta pandemia garaian, 2021eko martxoa |

Txostenak eskatu zitzaizkien Eusko Jaurlaritzako eta Arabako Foru Aldundiko organoei; babes zibilari, ingurumenari, kultura-ondareari eta inguru naturalari buruzko eskumenak zituztenei, hain zuzen ere. Eskari eta txosten hauek daude:

| ERAKUNDEA | JASOTAKO TXOSTENAK |
|---|---|
| Herri-lan eta Garraio Saila, AFA | Ez |
| Ondare Historikoaren Zerbitzua, AFA | Bai |
| Kultura Ondarearen Zuzendaritza, EJ | Bai |
| Babes Zibilaren Zerbitzua, EJ | Bai |
| URA Uraren Euskal Agentzia | Bai |
| Ingurumena eta Lurralde Antolamendua, EJ | Bai |
| Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Saila, EJ | Bai |
| Nekazaritza Saila, AFA | Ez |
| Gorbeia Parke Naturalaren Patronatua | Ez |
| Hirigintza Saila, AFA | Ez |
| Ingurumen Saila, AFA | Bai |

Era berean, administrazio-batzarrei jakinarazi zitzaien beren txostena ere egin zezaten. Honako administrazio-batzar hauen txostenak jaso ziren: Apodaka, Berrikao, Eribe, Etxabarri Dibiña, Letona, Olano eta Ondategi.

2011ko martxoaren 4ko Osoko Bilkuran onartu zen HAPOren Aurrerapena eta

| | |
|---|---|
| | 11/05/2017 |
| | 27/07/2017 |
| | 28/09/2017 |
| | 14/12/2017 |
| | 12/04/2018 |
| | 05/11/2019 |
| | 17/12/2020 |
| | Encuesta durante pandemia en marzo 2021 |

Se solicitaron los informes a los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral de Álava con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural. Constan las siguientes solicitudes e informes:

| ORGANISMO | INFORMES RECIBIDOS |
|---|---|
| Departamento de obras públicas y transportes de DFA. | No |
| Servicio de Patrimonio Histórico de DFA | Sí |
| Dirección de Patrimonio cultural a GV | Sí |
| Servicio de Protección civil de GV | Sí |
| URA Agencia Vasca del Agua | Sí |
| Medio ambiente y ordenación del territorio GV | Sí |
| Departamento de medio ambiente, planificación territorial, agricultura y pesca de GV | Sí |
| Departamento de agricultura DFA | No |
| Patronato Parque Natural Gorbea | No |
| Servicio de Urbanismo de DFA | No |
| Servicio de medio ambiente DFA | Sí |

Igualmente, se notificó a las Juntas Administrativas para la emisión de su informe al respecto. Se recibe informe de las Juntas Administrativas de Apodaka, Berrikano, Eribe, Etxabarri Ibiña, Letona, Olano y Ondategi.

En sesión de Pleno de 4 de marzo de

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 10

jendaurrean jartzea adostu zen; 2011ko martxoaren 16an argitaratu zen ALHAOn, Udalaren eta administrazio-batzarren iragarki-tauletan eta *El Correo* eta *Berria* egunkarietan. Era berean, akordioaren jakinarazpena egin zitzaien muga egiten duten udalerriei eta udalerriko administrazio-batzarrei.

Partaidetza-prozesu honen ondorioz, jardueretan jasotako ekarpenez gain, Aurrerapenari buruzko 271 iradokizun jaso ziren.

2018ko maiatzaren 4an Zigoitiko udal-planeamenduaren Aholku Batzordeak txosten bat egin zuen Aurrerapenari egindako iradokizunen gaineko gai nagusiei buruz, eta 2018ko maiatzaren 23an Osoko Bilkurak akordio bat onartu zuen HAPO idazteko erabili beharreko irizpide eta helburuekin. Irizpide horien arabera, Osoko Bilkurak, 2018ko irailaren 19an, akordio bat egin zuen herritarrek egindako iradokizunei erantzunez.

2018ko azaroaren 29an Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailari eskaria egin zitzaion Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismen Dokumentua egiteko, eta Hasierako Dokumentu Estrategikoarekin batera bidali zen Aurrerapena.

2019ko uztailaren 19an sartu zen udal honetako Erregistroan HAPOren Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismen Dokumentua, 2019ko uztailaren 11koa. Horrekin batera, ingurumen-organoak kontsultatutako administrazio publikoen txostenak igorri ziren.

Era berean, 2019ko otsailean amaitu ziren HAPO berrian genero-ikuspegia sartzeko txostena egiteko lanak.

2020ko ekainaren 8an Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin beharrik ez zegoela zioen txostena igorri zen.

2023ko martxoan sartu zen Zigoitiko Udalean “HAPOren agiria, hasierako onespena emateko”, idatzi zuen taldeak aurkeztuta.

Txostena igortzeko eskatu zitzaien honako administrazio hauei:

| ERAKUNDEA | JASOTAKO |
|---|---|

2011 se aprobó el documento de Avance del PGOU y se acordó su exposición al público, que fue publicada el 16 de marzo de 2011 en el BOTHA, en los tablones de anuncios del Ayuntamiento y las Juntas Administrativas, en los diarios de prensa El Correo y Berria. Asimismo, se realizó la notificación del acuerdo a los ayuntamientos colindantes y las juntas administrativas del municipio.

Como resultado de este proceso participativo, además de las aportaciones recabadas en las actividades, se recibieron un total de 271 sugerencias al Avance.

El 4 de mayo de 2018 el Consejo Asesor de planeamiento municipal de Zigoitia emite informe en relación a los asuntos principales de las sugerencias al avance, y el Pleno, el 23 de mayo de 2018, adopta acuerdo donde aprueba los criterios y objetivos con arreglo a los cuales ha de culminarse la redacción del PGOU. En base a estos criterios, el Pleno, el 19 de septiembre de 2018, adopta acuerdo dando respuesta a las sugerencias formuladas por la ciudadanía.

El 29 de noviembre de 2018 se realizó la solicitud al Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo de Diputación Foral de Álava para la emisión del Documento de Alcance del Estudio Ambiental Estratégico, remitiendo el Avance junto con el Documento Inicial Estratégico.

El 19 de julio de 2019 tuvo entrada en el Registro de este Ayuntamiento el Documento de Alcance del Estudio Ambiental Estratégico del PGOU de fecha 11 de julio de 2019. Junto al mismo se remitieron los informes de las Administraciones Públicas consultadas por el órgano ambiental.

Asimismo, en febrero de 2019 finalizaron los trabajos de elaboración del informe para la Integración de la perspectiva de género en el nuevo PGOU.

El 8 de junio de 2020 se emite informe sobre la no necesidad de realizar Estudio de Impacto Lingüístico.

El marzo de 2023 tuvo entrada en el Ayuntamiento de Zigoitia el “Documento del PGOU para su Aprobación Inicial” presentado por el equipo redactor.

Se solicitó la emisión de informe a las siguientes administraciones:

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 10

| | TXOSTENAK |
|---|---|
| Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusia. | Bai |
| Telekomunikazioen eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusia | Bai |
| Ebroko Konfederazio Hidrografikoa | Bai |
| Uraren Euskal Agentzia | Bai |
| Zigoitiko Ur Partzuergoa | Bai |
| Sustapen Ministerioa | Bai |

2023ko martxoaren 23an, eragin akustikoari buruzko ikerketa egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuarekin bat.

2023ko martxoan hasiera batean onartzeko dokumentu horrek egitura eta eduki hauek ditu:

1. Laburpen exekutiboa.
2. Informazio- eta justifikazio-memoria.
3. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.
4. Ekonomia-jasangarritasunaren memoria.
5. Hirigintza-arau orokorrak.
6. Eraikuntzaren eta erabileren ordenantzak.
7. Eremuen fitxak.
8. Informazio-planoak eta antolamendu egiturazko eta xehatua.
9. Katalogoa: babestutako ondasun kulturalak.
10. Ingurumen-azterlan estrategikoa.

Horrenbestez, eduki hori bat dator Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa) ezarritakoarekin.

2023ko martxoan aurkeztutako dokumentazioa ikusi ondoren, Hirigintza Zerbitzuko burutzak txosten bat egin du 2023 apirilaren 17an, HAPOren dokumentua hasiera batean onestearen alde. Zerbitzuko burutzaren txosten horren arabera, dokumentuan planteatutako proposamenek Udalbatzaren

| ORGANISMO | INFORMES RECIBIDOS |
|---|---|
| Dirección General de Aviación Civil del Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana. | Sí |
| Dirección General de Telecomunicaciones y Tecnologías de la información | Sí |
| Confederación Hidrográfica del Ebro | Sí |
| Agencia Vasca del Agua | Sí |
| Consorcio de Aguas de Zigoitia | Sí |
| Ministerio de Fomento | Sí |

En fecha 23 de marzo de 2023 se emite estudio de impacto acústico de conformidad con el Decreto 213/2012 de contaminación acústica del País Vasco.

Este documento para aprobación inicial de marzo 2023 tiene la siguiente estructura y contenido:

1. Resumen ejecutivo
2. Memoria informativa y justificativa.
3. Estudio de viabilidad económico financiera
4. Memoria de sostenibilidad económica.
5. Normas urbanísticas generales
6. Ordenanzas de la edificación y los usos.
7. Fichas de ámbitos
8. Planos de información y ordenación estructural y pormenorizada.
9. Catálogo: Bienes culturales protegidos
10. Estudio Ambiental Estratégico.

Este contenido se ajusta, por tanto, a lo establecido en la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo en su artículo 62 y en el Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en el desarrollo Ley 2/2006 en el artículo 31.

A la vista de la documentación presentada en marzo de 2023, la jefatura del Servicio de Urbanismo ha emitido informe de 17 de abril de 2023 favorable a la aprobación inicial del documento del PGOU. Este informe de la jefatura del Servicio considera que las propuestas planteadas en el documento responden a los Criterios y Objetivos adoptados

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 10

osoko bilkurak onetsitako irizpideei eta helburuei erantzuten diete eta dokumentuan jasotzen da gutxieneko dokumentazioa, 2/2006 Legearen 62. artikuluarekin eta ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren (2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa) 31. artikuluarekin bat.

Euskal hirigintza-araudian, Plan Orokorraren hasierako onespenari buruzko lege-aurreikuspenak jasotzen dira 2/2006 Legearen 90. artikuluan eta 46/2020 Dekretuaren (martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena) 27. artikuluan.

Hori horrela, 2/2006 Legean adierazten da Udalak, irizpideak eta helburuak zehaztu ondoren, hasierako onespena emango diola plan orokorrari, eta ondoren jendaurrean jarriko duela, udalerriari dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuz. Halaber, adierazten du sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei ere emango zaiela hasierako onespenaren berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

Bestalde, 46/2020 Dekretuak zehazten du hasierako onespenaren agiria eta ingurumen-azterlan estrategikoa jendaurrean jartzeko gutxieneko epea 45 egun baliodunekoa izango dela, iragarkia buletinean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Halaber, xedatzen du hasierako onespen-dokumentua eta ingurumen-azterlan estrategikoa bidali behar zaizkiela aldez aurretik kontsulta egin zaien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, aurreko apartatuan ezarritako epe berean txostenak eta egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Horrekin batera, kontuan izan behar da Ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 21. artikuluak jasotzen duena ere, hau da, planaren hasierako bertsioa eta ingurumen-azterlan estrategikoa jendaurrean jarri behar direla gutxienez 45 egun baliodunez. Zehaztapen hori bera jasotzen da Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen 73. artikuluan.

Jendaurrean jartzeko izapiderako dokumentazioari dagokionez, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren (Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena) 25.3 artikuluak

por el Pleno municipal y que en el documento se encuentra la documentación mínima del Plan General de acuerdo al artículo 62 de la Ley 2/2006 y al artículo 31 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en el desarrollo Ley 2/2006.

En la normativa urbanística vasca, las previsiones legales en cuanto a la aprobación inicial del Plan General se recogen en el artículo 90 de la Ley 2/2006, y en el artículo 27 del Decreto 46/2020, de 24 de marzo, de Regulación de los procedimientos de aprobación de los planes de ordenación del territorio y de los instrumentos de ordenación urbanística.

Así, en la Ley 2/2006 se indica que el ayuntamiento, una vez adoptados los criterios y objetivos, aprobará inicialmente el plan general y lo someterá a información pública por medio de su publicación en el boletín del territorio histórico y en el diario o diarios de mayor circulación. También señala que ha de notificarse esta aprobación inicial a las administraciones públicas con competencias sectoriales para su conocimiento e informe y a las Juntas Administrativas del municipio.

Por su parte, el Decreto 46/2020 precisa que el plazo mínimo para la información pública del documento de aprobación inicial y del Estudio ambiental estratégico es de 45 días hábiles a partir de la publicación del anuncio en el boletín. También recoge la obligación de remisión del documento de aprobación inicial y del estudio ambiental estratégico a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas que han sido previamente consultadas, para que, en el mismo plazo establecido en el apartado anterior, emitan los informes y alegaciones que estimen pertinentes.

Junto a esto, hay que tener en cuenta que la Ley 21/2013 de Evaluación Ambiental, en su artículo 21 recoge igualmente la obligación de someter la versión inicial del plan y el Estudio ambiental estratégico a información pública por un período como mínimo de 45 días hábiles. Esta misma determinación está reseñada en la Ley 10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi en el artículo 73.

Respecto a la documentación para el trámite de información pública, en el Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de Octubre por el que se aprueba texto refundido de la Ley

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 10

adierazten du hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko prozeduretan, jendaurrean jarritako dokumentazioak honako hauek adierazten dituen laburpen exekutiboa ekarri beharko duela:

- Proiektaturiko antolamenduak indarrean dagoena zein eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanez eta aldaketa horren norainokoa adieraziz.

- Hala badagokio, zein eremutan eteten diren hirigintza-antolamendua edo hirigintza-planak exekutatzeko nahiz hirigintzan esku hartzeko prozedurak, eta etete horren iraupena.

Gainera, betebehar hori aipatzen da ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa) 32. artikuluan, egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko planoak edo tresnak txertatu beharra aipatzen baitu.

Planaren hasierako onespenetik etorritako lizentziak etetea xedatzen da 2/2006 Legearen 85. artikuluan. Hain zuzen, aipatzen da hirigintzako planen hasierako onespenak berekin ekarriko duela edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera gehienez ere bi urtez etetea, aurreikusitako zehaztapen berriek indarreko hirigintza-araubidean aldaketak dakartzaten esparruetan.

Hirigintza-ordenantzari dagokionez, zehaztu behar da 2/2006 Legearen 99. artikuluak ezartzen duela horiek toki-erregimenari buruzko araudian udal-ordenantzetarako ezartzen den prozeduraren arabera izapidetu eta onartuko direla edo plan orokorreko gainerako dokumentazioarekin batera ere izapidetu eta onartu ahal izango direla. Horrenbestez, prozesu honek ez duenez hirigintza-ordenantza aldatuko, indarrean jarraituko du.

Azkenik, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluak dio Osoko Bilkurari dagokiola plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea. Arau horren 47.2.ll) artikuluak quorum kualifikatu bat zehazten du eta ezartzen du korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar dela.

de Suelo y Rehabilitación Urbana en el artículo 25.3 indica que en los procedimiento de aprobación de ordenación urbanística la documentación expuesta al público deberá incluir un resumen ejecutivo expresivo de los siguientes extremos:

- Delimitación de los ámbitos en los que la ordenación proyectada altera la vigente, con un plano de su situación, y alcance de dicha alteración.

- En su caso, los ámbitos en los que se suspendan la ordenación o los procedimientos de ejecución o de intervención urbanística y la duración de dicha suspensión.

Igualmente, esta obligación se señala en el artículo 32 del Decreto 105/2008, de 3 de junio de Medidas urgentes en el desarrollo de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, precisando la necesidad de inclusión de planos o instrumentos de información gráfica para posibilitar la comparación la ordenación actual con la futura.

La suspensión de licencias derivada de la aprobación inicial del plan está regulada en el artículo 85 de la ley 2/2006, donde se prescribe que el acuerdo de aprobación inicial de los planes urbanísticos determinará la suspensión, por el plazo máximo de dos años en el caso de que el acuerdo se refiera a planes generales el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en los ámbitos en las que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

En cuanto a la ordenanza de urbanización hay que precisar que el artículo 99 de la Ley 2/2006 establece que su modificación puede seguir el procedimiento de tramitación y aprobación de la normativa de régimen local o se puede hacer también de forma conjunta con el resto de la documentación del plan general. Por tanto, dado que en este proceso no se modifica la ordenanza de urbanización, seguirá en vigor.

Por último, la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local en su artículo 22.2.c) atribuye al Pleno la aprobación inicial del planeamiento general. El artículo 47.2.ll) de la citada norma determina un quorum cualificado requiriéndose el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación.

Baliozkotze Kod..: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 10

Ikusi dira proposatutako plan orokorra (planaren komenigarritasuna eta egokitasuna espedientean jasotako hirigintza-dokumentuetan justifikatzen dira), aipatutako manuak eta aplikatu behar diren gainerakoak. Hori horrela, Zigoitiko Udaleko Osoko Bilkurak, gehiengo osoz, honako hau

**ERABAKI DU**

**LEHENENGOA.-** Hasiera batean onestea Zigoitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, J. JOSÉ LUQUE VALDIVIA eta IZASKUN ASEGUINOLAZA BRAGA (AL LUQUE ASEGUINOLAZA Y ASEGURADOS SLP) jaun-andreek osatutako taldeak idatzita eta 2023ko martxoan aurkeztutako proiektuaren arabera.

**BIGARRENA.** Zigoitiko HAPO berriaren dokumentazioa eta ingurumen-azterlan estrategikoa jendaurrean jartzea 2023ko irailaren 29ra arte, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Arabako zirkulazio handieneko egunkarietan iragarkiak argitaratuta. Jendaurrean jartzeko aldian, interesa duen edozein erakundek edo pertsonak azter dezake dokumentazioa eta aurkez ditzake egoki iritzitako alegazioak. Dokumentazioa Udalaren webgunean eskuragarri egongo da, bai eta Kultur eta Gizarte Etxean horretarako gaituko den eremuan ere. Gainera, behar bezala emango da horren berri jendaurrean jartzeko iragarkian.

**HIRUGARRENA.-** Sektoreko eskumenak dituzten herri-administrazioei HAPOren hasierako onespenaren berri ematea, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten; baita udalerriko administrazio-batzarrei ere.

**LAUGARRENA.** HAPOren hasierako onespen-dokumentua eta ingurumen-azterlan estrategikoa aldez aurretik kontsulta egin zaien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei bidaltzea, jendaurrean jartzeko epean txostenak eta egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

**BOSGARRENA.-** 2/2006 Legearen 85.3 artikuluarekin bat etorriz, hasierako onespenaren erabaki horren ondorioz, egungo lurzoru urbanizaezinean era guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak ematea

Visto el Plan General propuesto, cuya conveniencia y oportunidad se justifican en los documentos urbanísticos que obran en el expediente, vistos los preceptos a los que se ha hecho referencia y demás que resulten de aplicación, el Pleno del Ayuntamiento de Zigoitia adopta por mayoría absoluta el siguiente

**ACUERDO**

**PRIMERO**. Aprobar inicialmente el Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Zigoitia según el proyecto elaborado por el equipo redactor formado por JOSÉ LUQUE VALDIVIA e IZASKUN ASEGUINOLAZA BRAGA (AL LUQUE ASEGUINOLAZA Y ASEGURADOS, S.L.P.) y presentado en marzo de 2023.

**SEGUNDO**. Someter a información pública hasta el 29 de septiembre de 2023 la documentación integrante del nuevo PGOU de Zigoitia junto con el Estudio Ambiental Estratégico por medio de publicación de los correspondientes anuncios en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en los diarios de mayor circulación de Álava. Durante este período de información pública cualquier entidad o persona interesada puede examinar dicha documentación y presentar las alegaciones que estime convenientes. La documentación estará disponible en la web municipal y en el espacio que se habilite para ello en el Centro Sociocultural y que será indicado oportunamente en el anuncio de información pública.

**TERCERO**. Notificar el acuerdo de aprobación inicial del PGOU a las administraciones públicas con competencias sectoriales y a las Juntas Administrativas del municipio, para su conocimiento e informe.

**CUARTO**. Remitir el documento de aprobación inicial del PGOU y el Estudio Ambiental Estratégico a las administraciones públicas afectadas y a las personas interesadas que hayan sido previamente consultadas, para que en el plazo de información pública emitan los informes y alegaciones que estimen pertinentes.

**QUINTO**. De conformidad con el artículo 85.3 de la Ley 2/2006 este acuerdo de aprobación inicial determina la suspensión, por el plazo máximo de DOS años, del otorgamiento de toda clase de aprobaciones,

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 10

eten egiten da, gehienez BI urteko epean, baldin eta aurreikusitako zehaztapen berriek indarreko hirigintza-araubidea aldatzea badakarte.

**SEIGARRENA.-** HAPOren oneste-dokumentuak Plangintzaren Aholkularitza Kontseiluaren aurrean aurkeztea eta organo horrek dokumentazio horri buruzko txostena egin dezala eskatzea jendaurrean jartzeko aldian.

**ZAZPIGARRENA.-** Hasierako onespenaren erabaki honen aurka ezin da administrazio-errekurtsorik edo administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, izapide-egintza bat delako. Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan ezarritako salbuespenak gauzatu ahal izango dira

**SINADURA ELEKTRONIKODUN DOKUMENTUA**

autorizaciones y licencias en el actual suelo no urbanizable en los que las nuevas determinaciones previstas supongan modificación del régimen urbanístico vigente.

**SEXTO**. Presentar la documentación integrante de la aprobación del PGOU ante el Consejo Asesor del Planeamiento y solicitar que este órgano emita informe sobre ella durante el periodo de información pública.

**SEPTIMO**. Contra este acuerdo de aprobación inicial no cabe interponer recurso administrativo o contencioso administrativo por ser un acto de trámite sin perjuicio de las excepciones contempladas en el artículo 112 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**

Baliozkotze Kod.: 3JYN9JR2W3MAJEESNQPG7YAPR
Egiaztapena: https://zigoitia.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 10